

ANGEL

Irati Oregi Belaustegi

Zumaia

Lozorroan zegoen emaztearen ondoan zaku patata bezala, kieto. Zurrunga egiten zuen ozen, gela ilunean bibrazioek kobazulo barruan bezala oihartzuna egiten zutelarik. Gelako pareta zuriek hausten zituzten piztiaren garrasiak gaueko agonian, euren kontra talka egin eta adreilu gogorra zeharkatu gabe nota desafinatu guztiak lurrera erortzen zirelarik.

Munstroak atsegin zituen oilasko hegoak. Oilasko hegoak eta txuleta. Oilasko hegoak, txuleta eta bazkalosteko patxaran kopatxoa. Igartzen zitzaion, goitik behera begiratzean, jatuna zela. Igartzen zitzaion ohetik altxa eta uzten zuen zuloaren dimentsioa aztertzean, gerri bueltak beharrezkoa baino buelta handiagoa ematen zuela, diametroa erradioa ber bi izan arren. Baina Floritaren jatetxeko entsaladako letxugek oliotan egiten zuten igeri, arto aleek tomateak erabiltzen zituztelarik flotagailutzat atun arroka gogorren kontra jo eta ez itotzeko. Eta horrela gustatzen zitzaizkion. Letxuga igerilariak eta arto suizidak platerean,

amaitzean, ogi apur batez busti eta Saharako desertua bezala uzteko plater gaina, lehor.

Emazteari bizkarra emanez, mesanotxeari begira egiten zuen lo, hogeita batgarren mendeko oilar birtualari begira. Gorroto zuen bere *tik-taka*, eta are gehiago goizetako sinfonia, baina ondo betetzen zuen bere lana... Goizeko bostetan esnatzen zen egunero. Txirrina jotzen hasi bezain pronto, bere zurrungak marmar sakon bihurtzen ziren goiz ilunetan, eta beso bat mahaitxo txikitik arrasatuz, kolpe lehor bat ematen zion erlojutxoari, egunero bezala bere lana ondo bete zuela esan eta esnatu zuela adierazteko. Noizean behin piper egiteko eskubidea zuela gogoraraziz honi ere... hogeita bost urtetan ez zitzaizkion-eta pilak behin ere ahitu. Ilunean, alarmaren ondoan zuen lanparatxo txikia piztu, eta aurreko egunean emazteak prest utzitako alkandora eta prakak jantzeari ekiten zion sistematikoki.

Lo egiteko galtzontziloak erantzi zituen alde batera eta bestera balantza apur bat eginez, galtzontzilo zuriak jantzi, galtza beixak, lo egiteko kamiseta kendu, barruko kamiseta jantzi, alkandorra koadrodun zaharra gainean ipini... goizeroko errituala.

Etxeko zapatiletan sukaldera joaten zen ondoren. Galtzetinak jantzi, zapatak lotu. Jarraian, sukalde hotz artifizialean gosaria prestatu beharra izaten zuen. Une horietan gogoratzen zuen gehien ama. Txikitan, neguko egunetan eskolara joan aurretik txokolate beroa ogi koskor handiekin prestatzen

zion garaiak. Gogoratzen zuen zer nolako pozarekin jaikitzen zen ohetik, sukaldetik etortzen zen usain goxo hura usaintzean. Amak beti esan ohi ziolarik *ondo gosaldtu, Angel, mutil handia egiteko!, gosaldtu gabe ezin da eskolara joan eta behar bezala errenditu!, jan egin behar da!* Ez zen, ez, gutxi oroitzen amaz, udazken hotzetako goizetan... batez ere sukaldera joan eta mahaia hutsik aurkitzen zuenetan.

Hasieran, ezkonberritan, beti esnatu ohi zen Marisa berari kafea besterik ez bazen ere prestatzera. Aurreko gauean eginda utzi eta katilu batean berotzen zion, ondoren koilara bat eta erdi azukre eransten zizkiolarik, ez gehiago eta ez gutxiago, atsegin zuen bezala. Garai haiek ere bere burmuinaren zoko bakarti batean amaitu zuten, berak nahi baino lehen, ohartzeko denbora izan baino lehen, gauzak aldatzeko...

Marisa ezagutu zuen eguna oroitzen zuen. Nola begiz jo zuen Santa Ixabeletako festetan, bere lagun koadrilarekin dantzan ari zela biribilean. Bera zen ederrena, dudarik gabe. Inguruko beste inork baino hobeto egiten zuen dantza, txoriek bezala. Eskuak goian zituela salto egitean, luma bezain arin bihurtu eta airean geratzen zela zirudien segundo luzez, bere irribarreak inozentzia eta alaitasuna islatzen zituelarik.

Ez zen erraza izan, ez, bera sarera hurbiltzea. Gau eta egun askotako izerdia balio izan zuen emakume hark, baina azkenean umiltasun eta samurtasunarekin ekarri zuen etxondora. Angel lanean zen postu finkoan, Marisa berriz, oinarrizko ikas-

ketak amaitu berria. Egun horretatik hiru bat hila-betera sartu ziren etxea erosteko erroldan. Hogeita bost urte geroago hor jarraitzen zuten artean...

Esnea berotzen jarri eta sobreko hautsak bota zizkion, gehiegi atsegin ez zuen arren, kafeak esnari konpainia pixka bat egin ziezaion sikiera... Kafesnea hiru zurrupadatan edan, tankea husteko komunetik pasa, eta kobazulotik irten zen udazkeneko goiz ilun hotzera.

Atariko atetik irten bezain laster hezetasuna itsatsi zitzaion buruko ile sustraietan, lepotik behera eta besoetatik gora hezurretaraino sartu zitzaion larik gaueko azken orduen bustia gorputzean. Umeltasun hotza nabari zezakeen sudurzuloetan, eta denbora gehiagoz hor jarraituz gero zozo-belarra ere haziko zitzaiokeela pasa zitzaion burutik. Horregatik, pauso azkarrean hurbildu zen kotxe-rantz, hezurren loturak herdoiltzeko beldurrez.

Citroen zx gorri zaharrean sartu, zeru gaineko ilargia leiho azpitik agurtu, eta egunero lez abiatu zen lantegirantz. Goizeko seietan irratiak piztuta errepidearen bakea salatzen zuelarik, goizero bezala. Eta Chileko meatzariak gora eta Obamaren azken hitzaldia behera... Eta ustiaketak gora eta petrolioa behera... Eta krisiak gora eta lanpostuek behera... Buruko mina eragiten zion guztiak. Akitu, gogaitu egiten zuen. Horregatik entzuten zituen kirolen sintonian futbol partiduen azken emaitzak, benetan gehiegi ez gustatu arren.

Hamabost minututan iristen zen lantegira. Betiko lantegira, betiko hamabost minututan. Ho-

geita bost urtetan aldatu ez zen eraikin horretara. Huraxe izango zen, Angelekin batera, berdin jarraitzen zuen gauza bakarretakoa, denek bezala hauek ere denboraren iragatearen markak azalean zituztelarik... Oroitzen zen lantegia berria zeneko garaiaz. Egin berria zenekoaz. Orduantxe zen eskola bukatutakoa, hainbeste buruhauste eman zizkion matematika hura gainetik kendutakoa. Behingoz helduen mundura jauzi egin eta gauzen garrantzia estimatzen hasiko zen garaia.

Aitak argi erakutsi zion bidea. Lanean hasi, emazte on bat bilatu eta ikasketak eta bestelako babokeriak alde batera laga zitzaizkien gomendatu zion, benetan historia ikasten jarraitzeko asmoa zuen arren... baina horrek ez omen zuen ekartzen eguneroko ogia etxera. Derrigorrezko heziketa amaitu zuen urtean bertan ireki zen lantegia eta, aitaren esana jarraituz, berarentzat onena izango zelakoan, gaztetxo hasi zen bertan lanean. Negar malkoak ziruditen euriak eragindako orban beltzek, lantegiko hormak artean konkistatu gabe zituzten garaian.

Txunp-txunp-txunp-txunp... piezak modelatzen zituen makinaren soinua aditzearekin batera sei eta erdietan sartzen zirenen txirrin luzea. Aldagelan, buzoa, segurtasun-zapatak, belarrietako tapoiak, segurtasun-betaurrekoak eta eskularruak janztearekin batera egun berriari egiten zioten ongietorria.

Lehenengo marklinari errotorea jarri engranajea estutu eta kaxara. Bigarren marklinari erroto-

rea jarri engranajea estutu pinoia begiratu engranajea lotu eta kaxara. Lehen eguzki printzak hasi ziren sartzen lantegiko teilatu ondoko leihoetatik. Hirugarren marklinari errotorea jarri engranajea estutu eta kaxara. Udako opor egunak zetozkion gogora, eguzkiak betazaletan joaz esnatzen zenetakoa. Buelta lehenengo marklinera errotorearen diametroa neurtu automatikotan sartu eta prest robotarentzat. Eta hauts artetik hondartza bateko egunsentian imajinatu zuen bere burua. Hurrengo marklina hartu errotorearen diametroa neurtu automatikotan sartu eta robotera. Hainbestetan Marisarekin amestu zuen bidaia erromantiko horretan. Azken marklina hartu errotorearen diametroa neurtu engranajea pixka bat estutu automatikotan sartu eta robotera. Anana zuku bat edanez itsaso urdinari begira, harea leun zuriaren gainean bero-bero, kokondo baten azpian...

–Hi, Angel! Goazen zigarrotxoa erretzera!

Eta eraiki berri zuen ametsa ere hauts artean nahastu zen.

Hamaiketan eguneko lehenengo zigarrotxoa tokatzen zen. Ferminak egunero gogorarazten zion. Betidaniko laguna zuen, hau ere lantegia ireki berritan sartu zenetakoa. Eta estimatzen zuen, askotan isil ezina zen hitz kutxa bihurtu arren.

Zigarroa iziotuz lehenengo tximiniak sortzen zituzten. Ke harizpiak irteten ziren aho berritsuetatik. Lantegi ondoko atean jarritz, denak taldetxetan, egunerokotasun funtsik gabeaz hitz egiten

zuten sugandila okertuek. Angelen sugandila aspaldian zen harresiaren atzean ezkutatua, eta beraz, Fermini entzutearen papera tokatzen zitzaion gehienetan.

–Entzun al duk azken notizia? Krisia dela-eta, eta ez supermerkatuan saltzen duten hori e! Kar, kar, kar! Ez aurpegi hori jarri, gizona, txantxa zuan. Emm... zera, krisi ekonomikoa dela-eta, soldaten erdirainoko murriztapenak izango omen dituk inguruko lantegi gehienetan... Kabroi galantak dituk. Ez hori bakarrik gainera! Gogoratzen al haiz Armendariz zaharraren semearekin? Ba(...)

Ferminek esaten zuen erdiari ez zion jaramonik egien. Askotan, guztiz deskonektatzea lortzen zutenetan aurreko eraikinetako leihotxoetara begira jartzen zen, bakoitzean bizi zen familiaren istorio bat asmatu nahian-edo. Alai imajinatzen zituen aiton-amonatxoak mahai inguruan eserita, ilobak eskolara joateko janzten edo gurasoekin batera gosaltzen...

–(...) kontua zera duk, hogeit hamar urte lanean eman ondoren kale gorrian amaitu duela horrek ere. Ez al da sinestezina?

Buruarekin gora eta behera egiten zuen, distraitu samar, ilargian izandako espedizio batetik etorri berriak duen begi ireki eta begirada galdu berberekin. Eta zer esan ez zekienean edozein unetan ondo etortzen zen betiko gaira jotzen zuen. *Hi Fermin, enteratu al haiz Rayo Vallecanoren azken emaitzaz?*

Poliki-poliki barrurantz sartzen hasi ziren, txin-durriak inurritegian lez, filan-filan.

Hurrengo robotera joan, engranajea begiratu, tuerkari pare bat bira eman eta barrura. Bigarren engranajea begiratu, tuerkari buelta eman eta barrura. Hirugarren engranajea begiratu, tuerkari buelta eman eta barrura. Laugarren engranajea begiratu, besapean jarri eta hurrengo robotera. Bira bat eman eta barrura.

Ez zuten inoiz seme-alabarik izan, Angelek izugarri gogoko zituen arren. Marisak ezin zituen eduki. Behin baino gehiagotan saiatu ziren, txanpon asko laga zituzten mediku eta pilula berezietan, baina alferrik. Hilekoa jaitsi baino lehenago, hilekoa jaitsi ondoren, erdian ilargi betearekin edo gabe. Denetarik egin zuten, baina alferrik.

Angelek ez zuen sekula bere etorkizuna horrela imajinatu. Ume asko izango zituela pentsatzen zuen, buruhauste anitz eragingo zizkieten umetxoak espero zituen. Etxera iritsi eta zapatilak etxeko edozein lekutan uzten zituztenak. Zopa amaitzeko azken koilarakadak abioiaren moduan sartu behariko zizkion umea imajinatzen zuen, etxeko mahaian ahoa ireki-ireki eginda. Edo handiagoa egitean goizeko ordu txikitan esna ikusten zuen bere burua, parrandatik etxera noiz iritsiko zain...

Egun guztiak berdinak iruditzen zitzaizkion. Asteko egun guztiak berdinak, hilabeteko aste guztiak berdinak, eta berdinak urteko hilabete guztiak ere. Marisak etxean igarotzen zuen eguna, eta Angelek lanean, barkuko piezak egiten...

Askotan imajinatu ohi zuen bere burua egiten zituen barkuetako batean, Marco Polo edo Elkano

bezala, munduan zehar bidaiatuz eta herrialde berrietako kulturak eta ohiturak ikasiz. Baina ezinezkoa zen hori Angelentzat... ez luke Marisa sekula horrelako zerbait egitera konbentzituko! Txori eder hori plazan dantzan ikusi zuenean, ikusi izan balizkio sikiera zein motzak zituen hegoak, zein gogo gutxi zuen hegan egiteko...

Robotez aldatu, marklinak kontatu eta zuzen parekatu ondoren zintara. Txunp. Beste bina parekatu, zuzen jarri eta gero zintara. Txunp. Hirugarren pareja hartu, zinta gainean kokatu eta barrura. Txunp... Bukatzeko desiratzen zegoen. Dena amaitu nahi zuen... eta robotera. Txunp. Bosgarren marklin pareta hartu, zuzen jarri eta zinta gainera. Txunp... Aurrerantz jarraitzeko arrazoiren bat bilatu nahi zuen (...) Txunp.

Etxera iritsi eta ez zuen inor aurkitu bertan. Hutsik zeuden gelak, inoiz baino hotzago. Logelara joan eta pijama janztera zihoala, bakardarearen atmosfera berezi bat atzeman zuen gelako itzalen tonalitatean. Nolabait beldurtu egiten zuen arnastu zezakeen airearen pisu hark, usain berezi hark. Birikak zulutzen zizkiola igartzen zuen, pixkanaka-pixkanaka, min ematen ziolarik listua irensteak ere.

Ez zegoen Marisaren arrastorik. Bere arropa baztuk falta ziren, baita neguko jaka ere. Komunean ez zegoen bere hortzetako eskuilarik, eta falta ziren bere oherako amantala eta etxeko zapatilak ere. Hogeita bost urte baino gehiagoko harremnaren ondoren ez zion nota bat bera ere laga, ez

zion abisu txikienik eman ere. Guztiz biluzten zuten horrelako detailtxoek bien arteko konplizitate.

Hozkailua hutsik zegoen eta, gose handiegirik ez zuenez, taberna batera joan zen Angel bere askatasuna ospatzera, hegan egiteko ahalmena gorai-patzera.

Pare bat orduren ondoren, ardo beltza odolarekin ezin bereiz zitekeen bere zainetan barrena... Marisak alde egin eta txori askea zen berriro, ez zegoen lotuta. Hegoen gainetik hautsa kendu zeza-keen eta aspaldian atera gabeko lumak astindu. Zubi hartatik salto egin zuenean baina, beranduegi zen jada hegorik ez zuela ohartzeko. Urteak ziren jada hegan egiteko hegoak Angelek berak lotu zituela, bere burua engainatzen jarraitu zuen arren... Errekan behera ur gainean mantentzeko indarra egiten ari zela, zerurantz zuzendu zuen begirada, izarrei laguntza eskatuz bezala. Hego txikidun uso bat ikusi zuen bere gainetik igarotzen, baldar. Habiatik irten berri oraindik, ikasten ari zen txoritxo...

Hurrengo goizean, ez zen nota atrofiaturik kobazuloko partean hautsi. Ez zen munstro handiaren zurrungen kexurik edo aipurik izan. Goiz hartan, oilar diktadorearen txirrinaren notak apurtu egin ziren gelako adreiluetan, hogeita bost urteren ondoren ere, pilak ahitu gabe.